



Arremanitz Kooperatiba, Hernani erotizatzen eta Tratu Onetan murgiltzen

■ TRATU ONEN HERRIA- LARRAITZ ETA KISTIÑE

Hernaniko Hezkuntza Plataforma

Zein da Hezkuntza Plataformaren ibilbidea?

2012an hezkuntza arloan herri mugimendua piztu nahian talde biltzearekin sortu zen. Denborarekin taldea egokitz-en zehazten joan da eta orain 2 urte Hernaniko Hezkuntza Plataforma sortu genuen eta herriko zentro publiko guztietako ordezkariak eta ordezkariarik gabeko herri-tarrak osatzen dugu.

Eta orduan zein da Hezkuntza Plataforman egiten duzun lana?

Hezk. Plataforman bi lan ildo daukagu. Batetik LOMCE-Heziberri lege eta egitasmoen aurkakoa; jada hainbat ekin-tza burutu ditugu eta jarraituko dugu burutzen; hala nola maiatzaren 5erako deitu dugun kanpo azterketen kon-trako herri mobilizazioa.

Bestetik, eraikitzaileagoa den ildoak; nahi genukeena asmatzen laguntzen diguten Hezkuntza Eskolak deitzen ditugun hitzaldiak. Hilabeteko bigarren ostegunetan, Udaltxean 19:00etan, hezkuntza modu zabalenean eta gai oso desberdinen inguruan: eskola kirola, kompetenzi digitalak, jangelen kudeaketa autogestionatua, tratu onak, jolas eta jostailu ez sexistak, Gernikako Astra, parke eredu berriak, etab.

Horretaz gain, aurten Hezkuntza Buletina sortu dugu, bigarren alea atera berri dugu. Eta oraintxe bertan, Ebaluazioaren inguruan mintegi bat antolatzen gabiltza apirilak 29, maiatzak 6 eta 13an burutuko dena Biterin.

Zuen ustez, ze ekarpen egiten diozue herriari?

Gizartearen hezkuntzak duen garrantziaz gehiago ohartaraztea; hezkuntza ardatz hartuta hainbat ekimen egitea eta hezkuntzaren eskolatik herrirako saltoa ematen laguntzea.

Zuen ustez, eta Tratu Onen dagokionez, zer indartu behar da Hernani mailan?

Gizarte solidarioago bat lortu

beharko litzateke, elkarlana bultzatuz momentu, leku eta egoera guztietan. Indibidualismoari aurre egin harremanak gehiago zainduz, baloreak indartuz, norbera den bezala onartuz eta errespetatuz, konplexutasun eta aniztasun guztiekin; umiltasun gehiagorekin bizi beharko genuke.

Eta herrian daukaguna baloratze aldera, zeintzuk dira egun hezkuntza sisteman dauden praktika onak?

Ikastetxei begira, herriko neska-mutiko guztiek parte hartzen duten ekimen guztiak aipatuko genituzke: eskola kirola, udako udaleku irekiak, iñauteriak, Korrika txikia, euskararen eguna, preludea, etab. Udaletxeko sail desberdinetatik bideratzen diren hainbat egitasmo ere, herriko ikasle guztiek jasotzen dituztenez, oso interesgarriak dira: harremonak egitasmoa, bide heziketa, ingurumen hezkuntzaren ingurukoak, e.a, beti ere, hezkuntza modu transbiersal batean landuta.

Zer nolako hezkuntza eredu irudikatzen duzue denontzako ona izango den Tratu Onen herri amestu hortan?

Eskola komunitate bakoitzean, bakoitzak bere identitate ezaugarri propioak eta desberdinak izanik ere, partaide guztion inplikazio askoz handiago duen hezkuntza eredu irudikatzen dugu, non irakasle, ikasle eta gurasook, elkarrekin lana egingo genukeen, gizarte eredu askoz justuagoa eta solidarioagoa izateko borrokatu litzatekeen. Tratu Onak, norberaren burutik hasi, norbere burua maitatuz eta umiltasunez jardunez, eta ondokoarekin harreman sanoak, solidarioak eta eskuzabalak mantenduz. Herri mailan Hezkuntza orain baloratzen dena baino askoz gehiago baloratuko balitz, Tratu Onen herria errazago lortuko litzatekeela uste dugu. ■



Larraitz Mendible Apezetxea eta Kistiñe Lujanbio Galdeano, Hezkuntza Plataformako kideak.

■ EROTIKAN PLAX - ARANTZA OIARZABAL AROZENA

“Maitasunez prestatutako edozein jaki da erotikoa”

Biteri Kultur Etxeko ateak ireki dizkigu Arantzak. Berarentzat, maitasuna egunero ureztatu beharreko landarea da, erotismoa, aldiz, artea.

Izena:

Arantza Oiarzabal Arozena

Jaio:

1963-09-10

Herria:

Hernani

Bizitokia:

Hernani

Lanbidea:

Atezaina - mantenua



Arantza Oiarzabal Arozena Biteri Kultur Etxeko harreraren.

Zeri irekiko zenioke atea?

Bizipozari, alaitasunari, umore onari.

Sartzen utziko ez zenukena?

Errespetu falta.

Konpondu edo bota?

Konpondu, lanean eta bizitzan.

Griñak mantenua behar du...

Desioa motibatua egin behar da, utzikieriarekin galdu egiten da.

Konponbiderik ez du...

Gogoa jartzen ez duenak, horrekin ezin da aurrera egin.

Harrera bereziki ona merezi du...

Ahulago datorren horrek, beldurrez datorrenak.

Gustuko momenturen bat zure lanean?

Jendearekin harremanetan.

PLAZERREN PUTZUA

Zer egiten duzu plazer hutsagatik?

Dori Tabernara joan eta kafe bat hartu.

Jaki erotikoa bat?

Maitasunez prestatutako edozein.

Irakurgai kilikagarriren bat?

Esku bakarrarekin irakurtzeko kontuak.

Plan paregabe bat?

Mendira joan eta bueltan tortila patata prestatu eta sagardo botilaz lagundu. Gero geroakoak...

Usain bat...

Basoko marrubiak.

Itxi gabeko desioren bat?

Behin irakurri nuen... 50 urtetik aurrera, desio bat behar bat da.

Pelikula inspiragarri bat...

Komikizaleagoa naiz ba ni.

SEX-ESALDIA BUKATU...

Desioaren etsaia dira...

Egunerokotasuna, presa,

goxotasun falta.

Ez naiz modeloa, ez naiz aktorea...

EMAKUME bat naiz.

Nola esan...

Maite zaitut. Askok kostatzen zaigu.

Tatxan! eta orduan...

Goizean zumo goxo batekin esnatu naute.

SASIGALDERA

Ohiko bixitari batek bere bizitzan menopausiak sortutako aldaketa eta gogo berriei erantzuna ematea lortu nahiko balu, zer aholkatuko zenioke?

Lotsa eta beldurrik gabe Plax! zerbitzura jotzeko. ■

PLAX! Hernaniko udaleko sexu eta bikote aholkularitza da. Aurrez-aurreko doako arreta zerbitzua ematen dugu. Sandiusterrri 1 zenbakian dugu bulegoa. Hurrengo saioak: maiatzak 11n (15:30-18:30) eta maiatzak 27an (10:00-13:00). Hitzordua egiteko: 656 544 606 (deitu edo bidali whatsapp bat), www.hernani.eus/sexu edo [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani)



Liburuaren inguruko solasaldia
Maiatzak 9, asteartea
19:00
Biteri kultur etxea

Hizlariak:
Miren Odriozola
Leire Ibaguren

hernaniko
Euzko
Herriko
Udalak

Herriko
Udala

Herriko
Udala

Herriko
Udala